

Goi

Goierritarra aldizkaria

398 zenbakia 2011ko martxoak 25



**APIRILAREN
13AN
KORRIKA
GOIERRIN**

GEHIGARRI BEREZIA


IGARTZA



ALTAMIR
JATETXEA

Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net





Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irigarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea



Ion Muñoa

Zenbat da bi minutu? Zer egin dezakegu bi minutuan? Galdera honi bueltaka egin dut gaur Zeraindik Donostiarako bidea. Kafe azkar bat har genezake akaso; edo korreo elektronikoa begiratu edo telefono deia egin. Bi minutuan komuneke buelta arina egiteko astia ere eman lezake, eta baita hortzak garbitzekoa ere! Baina egun bakoitzari bi minutu kenduko bagenizkio seguruenik inor ez litzateke ohartuko.

Eta zergatik bi minutu? Pentsatuko duzue denboraren kudeaketan krisi existentzialistaren bat pasatzen ariutako naizela. Baina ez! Askoz xumeagoa da nire kezka. Nire emaileko sarrera ontzira bost bat bider iritsi da mezu bat azken egunotan. Josetxo delako batek idatzitako mezuak zioenez, Ordizian eta Iruran (N-1ean) 'tarteteko radarra' jarri behar dituzte Donostiara bidean. Hau da, Ordizian argazkitxo bat aterako omen dute gailu inteligente horiek eta Iruran beste bat. Eta tarte hori egiten ibilgailu bakoitzak zenbat denbora behar izan duen kalkulatu, jakingo dute baimendutako abiadura baino azkarrago joan den gidaria. Bejondeiola teknologiar!

Zer da ba bi minutu!

Beti presaka eta beti berandu gabiltzanoi patxada pixka batek ez digu kalterik egingo.

Gaur, eguneroko bidean, Ordiziako radarraren euskarritik Irurakora dagoen tarte neurtu dut autoz. Hogei kilometro eskas daude. Tarte horretan autoentzako gehieneko abiadura 100 km/h da. Beraz gutxienez 12 minutu pasa behar ditugu batetik bestera iristen, etxean isun eder bat jaso nahi ez badugu. Bide-zati berbera 120km/h-ko batez besteko abiaduran eginez gero, 10 minutu behar ditugu. Beraz bi minutu aurreratzen ditugu!

Nire ondorioa garbia: nahiz eta egunero errepide horretan ibili, eta nahiz eta abiadura mugak sekula ez errespetatu (radar finko bakoitzean bai), neurri honen aldekoa naiz. Zer da ba bi minutu! Beti presaka eta beti berandu gabiltzanoi patxada pixka batek ez digu kalterik egingo.

Bi minutu, egoeraren arabera gehiegi edo gutxiegi izan daitezke. Haur txiki baten irribarre entzuteko gutxitxo dira bi minutu, barre algara girorako, gustuko konpainian zaudenerako, parrandarako akaso, gutxiegi. Aldiz, zain egoteko edota mina tartean den kasuetan aldatu egiten da kontua: gehiegi izan daitezke bi minutu ziega batean, bost eguneko inkomunikazioan torturak jasaten ari den batentzat, bortxaketa edota humilazio egoeran, infernu latza izan daiteke bi minututan gertatutakoa. Kasu batzuetan berriz, nahikoa izaten da segundu bat, bizitza hankaz gora jartzeko.

Egia da bai, azken egunotan hizpide izan dela zuk aipatu duzun radarra. Baita errepideko abiadura mugaren kontua ere. Orduko 110 kilometroko muga jarri baitute gehieneko abiadura gisa, petroleoa edo energia aurrezteko aitzakiatzat jarrita.

Baina, ez al da izango jendeari hizketarako gaia emateko amarruren bat? Beste era batera esanda; jende guztia horretaz hitzegtzen jartzea al da helburua? Herritarren

Galdera asko eta asko datozkit burura bai,

eta ez pentsa, bi minutu baino gehiago

daramatzat erantzunen bat topatu nahian.

kezka nagusia hori izatea lortu nahi ote dute? Energia eta petroleoa aurrezteko beste biderik ez al da? Eta gizarte honetan ez al dago abiadura muga 10 kilometro orduko tartean jaistea beste neurririk?

Jende asko da bai egunero errepide horretan atzera eta aurrera, lanera joaten dena eta bizi dugun egoera ekonomiko latz honetan, jendartean isunaren beldurra, mehatxua zabaldu nahi ote dute? Zertarako nahi dute beste sistema baten bidez abiadura neurtu; diru iturria izan dezaten akaso? Eta abiadura ordeztu, errepideen egoera aztertu-ko balute? Aztertu al dituzte beste aukera batzuk?

Galdera asko eta asko datozkit burura bai, eta ez pentsa, bi minutu baino gehiago daramatzat erantzunen bat topatu nahian.



Eneritz Gorrotxategi

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Azaleko argazkia: Fotoetxe
Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Bat gora eta bat behera!

Maizpide euskaltegia

Gaztelaniazko **un/una** guztiak ez dira beti **bat** euskaraz (ezta **unos/unas** guztiak **batzuk** ere). Azken boladan, ordea, badi-rudi zorioneko **Bat** hori behar baino gehiagotan erabiltzen dugula (askotan “-A” artikulua erabili beharrean).

Batzuetan ez du ematen oso erraza denik zehaztea bata ala bestea, baina Euskaltzaindiak honen inguruan esandakoari jarraituz, arau batzuk emango ditugu, **testuingurua**, **ezagun/ezezagun**, **zenbakarri/zenbakaitz** eta beste hainbat aldagarri kontuan hartuta.

Noiz erabiliko dugu ‘bat’?

1. **Bat/asko** oposizioa azpimarratu nahi dugunean:

- ✓ **Lau** gizon eta emakume **bat** sartu dira tabernan.
- ✓ Kalimotxo **batek bi** zuritok adina balio du.

2. Ipuin, istorio, pasadizo edo gertakariren bat kontatzen hastean, **norbait** edo **zerbait** aurkezteko:

- ✓ Pakok Gasteizko neska **bat** aurkeztu zigun atzo. Neska jateko modukoa zegoen.
- ✓ Israeldar **batek** palestinar **bat** (eta ez **bi**) hil zuen atzo Zisjordanian.

3. “-(r)en bat” egituran:

- ✓ **Laurogei(ren) bat** lagun joan ziren udaletxera, euren ezinegona adieraztera (= **laurogei** gutxi gorabehera).
- ✓ Lebergailuren **bat** izan da (= lebergailua izan da, antza).

Noiz erabiliko dugu ‘a’?

1. **Izen zenbakaitzekin** (haizea, hotza, beroa, ohorea...) erabiliko dugu; adjektiboren bat agertzen denean, ordea, “**bat**” sartzeko aukera izango dugu.

- ✓ Izugarrizko **beroa** dago kanpoan.
- ✓ Ohorea **izan** zen guretzat Nelson Mandelarekin hitz egitea.
- ✓ Obore **bandi bat** izan zen guretzat Nelson Mandelarekin hitz egitea.

2. Izen zenbakarria izanagatik, **balio generikoa duenean**:

- ✓ Nekazaria **izorratu** besterik ez dute egiten enpresa handiek.
- ✓ Euskaltegia **ez da** euskara ikasteko leku bakarra.

3. **Zenbakarria izan arren, aurrez aipatu badugu**:

- ✓ Oporretan laku zoragarri **bat** ikusi zuten Alexek eta Anek.
- Lakua Arroyo herritik hurbil omen dago.

4. **Norbaiti edo zerbaiti buruzko iritzia ematean**, iruzkinen bat egiten dugunean...

- ✓ Hi **alua** baiz (edo **alu butsa**, **alu galanta**). (**egokia**)
- ✗ Hi **alu bat** baiz! (**desegokia**)
- ✓ Zuek lotsagabeak zarete (edo lotsagabe butsak, lotsagabe galantak). (**egokia**)
- ✗ Zuek lotsagabe **batzuk** zarete! (**desegokia**)
- ✓ Hau **mabaia** da; hori **aulkiA** da; bura **leiboa** da.
- ✗ Hau **mabai bat** da; hori **aulki bat** da; bura **leibo bat** da. (**desegokia**)

5. **Nahiz eta zenbakarria izan, dugun informazio edo eza-gutzagatik**, izen hori aipatzean bakar batez ari garela daki-gunean. Halere, adjektiboren bat agertuz gero, “**bat**” erabiltzea izango dugu.

- ✓ **Liburua** besapean agertu zen Martxelo.
- ✓ **Fariasa** erretzen hasi zen Joxe Jabier.
- ✓ **Tabernan** sartu zenean Montekristo **bandi bat** erretzen hasi zen Joxe Manuel.

Oharra: Lehenengoari eta laugarrenari erreparatu bereziki, horietan egiten baitugu huts gehien!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Hi, Lutxi, zerri bat haiz! Hire gorputzak ez din aste osoan urik ikusi!
2. Koxme zigarro bat ahoan sartu zen bilerara.
3. Seme, arren, ez hadi kalera atera! Haize bat zebilek...
4. Poz bat eman zidan azterketa gainditu nuela jakiteak!
5. Istripuren bat izan omen du gure Mariatxok!

OHARRA: lehenengoan zerri hutsa (galanta) haiz behar du; bigarrenetan, zigarroa ahoan; hirugarrenetan, izugarrizko haizea zebilek; laugarrenetan, a ze poza hartu nuen jakitean; azkena, zuzena da.



Egur biltegiak ala basoak

Garai bateko lege ekonomiko- en arabera, natur balioak mugagabetzat hartzen ziren. Sinesgaitza bada ere, gaur egun batzuek sentipen bera daukate. Gure inguruko naturbalioak xahutu ondoren urrutiko herrietara jo dute eredu berarekin jarraitzeko. Gure gizartearen gurariak asetzeko beste herrialdeei inposatzen dizkiegu laborantza eta abeltzantzan lanak. Beharrezkoak al dira neguko marrubiak eta meloiak? Guretzat ekoizteak zein eragin du jatorrizko herrian? Manglareak suntsitu dira gure gizartearentzat izkirak hazteko. Oihan tropikalak birrintzen dira egur exotikoak lortzeko, behiek bazkaleku zabalak izan ditzaten eta freskagarriak egiteko laranja eta limoiondoak landatzen dira. Horrelako hamaika adibide daude munduan zehar. Ikuspegi motzeko irabazia, basoaren txirotasuna eta desagertzea da arriskurik nagusiena. Beste erabateko ustiaketa ereduak badira, ezagunak, errentagarriak eta herrialdeen beharrak asetzeko adina. Elikadura subirotasuna ezarri beharreko eskubidea da oraindik mundu osoan. Bestalde, FSC zigiluak egurraren ustiaketan kudeaketa arduratsua egon dela bermatzen du.

Orain dela hogeita hamar urte Masanobu Fukuokak aurreikusi zuen gaur egungo egoera. "Elikadura krisi batera iristen bagara, ez da Naturaren emankortasunaren urritasunarengatik izango, giza nahien bitxikeriarengatik baizik".



Basoak bioaniztasun handiko ekosistemak dira. Zuhaitzak oinarria izanik landare, animalia, onto eta mikroorganismo ugarien arteko harremanak sortzen dira bertan. Bizirik edo hilik zuhaitzak ezinbestekoak dira basoaren oreka mantentzeko. Lurzoruaren, klimaren, uraren eta airearen osasunari loturik daude basoak.

Haltzadiak erreka eta ibaiekin batera aurkituko ditugu. Beteluko artadia Kuaternarioko garai lehorren ondarea da, berez artea zuhaitz mediterranearra baita. Harizti, erkamezti eta amezti basoak ikus ditzakegu Aizkorriko hegoaldean eta

pagadien adibide Lizarrustikoak aipatuko ditugu. Baso ezberdinen artean haginak, lizarrak, urkiak eta abar luzea. Zoritzarrez, pinudiak bertako espezieen ordeztatu dira eta honek eragin kaltegarria izan du lurra eta bioniztasunarentzat. Aukeratu hauetako edozein zuhaitz eta behatu goitik beheraino. Zenbat izaki (liken, goroldio, onto, belar, hegazti, intsektu...) edo beraien aztarna ikus ditzakezue? Gure herrietako arboletan hainbeste bizitza ba al dago?

Herriek beraien basoak galtzen dituztenean, lurzorua galtzen da, euriaren zikloa eraldatzen eta klima aldatzen da. Bioaniztasuna murrizteaz gain, kultur balioak ere desagertzen dira. Ahaztezina da basoak hainbat kulturetan duen garrantzia, gurean barne.

"Basoa, argia bizia bihurtzen den toki"

K. Irazustabarrena

JAKIN BEHARREKOAK

ARGAZKI ERAKUSKETA

'Elkarrekin, naturako elkarrekintzak' Euskal Naturaren eskutik eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin, Ordiziako D'Elikatuzen, apirilaren 1etik (19:30ean aurkezpena), maiatzaren 6ra. Antolatzaileak: Landarlan eta Oiangu Parkea Bizirik. Euskal Herriko biodibertsitatea ezagutarazi eta dibertsitate hori osatzen duten bizidunen arteko erlazioak azaltzen da.

LIBURUA

'Lurra lurzorua bailitzan' Inaki Petxarroman, Txalaparta. Ekologiaren inguruan Euskal Herriaren argazkia eskaintzen digu eta irudi gogorra gainera. 30 urtetan hirukoiztu egin da errepide bihurtutako lurra, Europa osoan autobide kilometro gehientsuen duen herrialdeetako bat da Euskal Herria. 20 urtetan bikoiztu egin da sortzen den zabor kopurua. Baikor izateko datuak ere badira: errauste plantaren aurkako mugimenduak, baserritar eta kontsumitzaileen arteko harremana baloreen ezartzen duten mugimenduak...

FILMEA

'Earth Days- lurraren egunak' apirilak 7 osteguna, 21:00etan, Ordiziako Herri Antzokian, doan, Udalak antolatutik. Filme dokumental honetan orain 40 urte ingurumenaren aldeko mugimendua nola sortu zen kontatzen da eta horren sortzaileetako batzuk azaltzen dira.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Bizirik edo hilik zuhaitzak ezinbestekoak
dira basoaren oreka mantentzeko. Lurzorua,
klima, ura eta airearen osasunari
loturik daude basoak.



Laura Fernandez



“Biologia Olinpiadan froga teorikoa eta praktikoa zeuden”

Biologia Olinpiadako garaile da Laura Fernandez Jubin beasain-darra, Beasain BHiko ikaslea. Euskal Herriko Unibertsitateak Biologia Olinpiadaren Euskal Herriko fasea antolatu du. Hurrengo urratsa Estatu mailako olinpiada izango da, apirilaren lehen egunetan Granadan.

Zein ikasketa egiten ari zara?

2. batxilerra egiten ari naiz Zientziak eta Teknologia modalitatean. Ikasten ari naizen jakintzagaiak ondokoak dira: Biologia, Lur eta Ingurumenaren Zientziak, Anatomia, Kimika...

Nolako frogak egin behar izan dituzu Olinpiada irabazteko?

Bi froga egin behar izan ditut: lehendabizikoa teorikoa eta hurrengo praktikoa, biak Bilboko EHUn. Froga teorikoan test moduko 50 galdera erantzun behar izan genituen. Froga horretara 50 ikasle inguru aurkeztu ginen Euskadiko institutu desberdinetatik eta horietatik lehenengo hamarrak sailkatu ziren praktikora. Froga teorikoa prestatzeko klasean emandako teoria errepasatu eta oraindik eman gabe geneukan teoria oso gaineratik ikasten saiatu ginen Pakiren (gure biologiako irakaslearen) laguntzarekin.

Froga praktikoa nota hoberenak lortzen zituzten 3 ikasle klasifikatzen ziren bakarrik. Hiru froga desberdin egin genituen: landare baten identifikazioa klabe dikotomikoak erabiliz, ehunen bereizketa sekzio histologikoetan eta euli batzuen mutazioak identifikatzea. Froga praktikoa teorikoa baino gehiago prestatu behar izan nuen, botanikari buruzko atala gutxi lantzen delako batxilergoan. Horregatik zenbait atsedean garaitan, Pakiren laguntzarekin, laborategian landareen atalak eta abar ikusi eta ikasten saiatu nintzen, baita muskuilu baten disezioa ere eta beste hainbat argibide teoriko.

Hurrengo urratsak noiz eta non izango dira?

Granadan Autonomia Erkidego guztietatik klasifikatutako ikasleak bilduko gara beste froga teoriko eta praktikoa egiteko. Fase hau martxoaren 31tik apirilaren 5era arte izango da. 55 ikasle inguru egongo gara eta 8 sailkatuko dira. Zortzi hauetatik lau ikasle Puerto Rico-ra joango dira fase iberoamirikarra egiteko eta beste lauak Taiwan-era, nazioarteko fasera.

Zein da gehien gustatzen zaizun jakintzagaia?

Biologia, lur eta ingurumenaren zientziak eta anatomia dira gehien gustatzen zaizkidan ikasgaiak.

Aipa itzazu zure lan-ohiturak.

Selektibitateari begira hainbat ikasgai garbira pasatzen ditut. Selektibitate prestatzeko errazago iruditzen baitzait norberak pasatutako apunteetatik ikastea txostena edo liburuetatik ikastea baino.

Zer ikasketa egiteko asmoa duzu etorkizunean?

Medikuntza ikasteko asmoa dut. Karrera horretan sartzeko batz bestekoa altua da eta askotan ikasgai konkretu batzuetan zailtasunak sortzen direnez komenigarria da beste guztietan ahal den nota altuena eskuratzea.

Nola uztartzen dituzu ikasketak eta aisia?


Ikasketak astean zehar eramaten ditut asteburuan aisia eduki ahal izateko. Hala ere badaude salbuespenak, izan ere azterketa garaian ezin izaten dut hainbeste aisia izan, baina hala ere hau konpentsatzen da azterketak amaitzen direnean.

Zein dira zure hobbyak?

Orokorrean denen antzekoak, ez naiz oso originala horretan!

Zer aholku emango zenieke batxilergo ikasleei?

Dena egunera eramatea ez agobiatzeko eta estresatzeko, nik agobiatuta egotea oso gaizki eramaten dudana baita.



Badator Korrika 17!

Apirilaren 13a, goizeko 9etan, Legorretara iritsiko da Korrika 17. Korrikaren lekukoak, eskuz esku, pausoz pauso, 6 ordu egingo ditu Korrikak Goierriin barrena. Legorretatik sartu, eta Itsasondo, Ordizia, Beasain, Lazkao, Olaberri, Idiazabal, Segura, Zerain, Mutilo, Ormaiztegi, Arriaran eta Mandubi pasatu ondoren, Matxinbentan utziko gaitu Korrikak. Apirilaren 7an Trebiñun hasi eta Donostian bukatuko da apirilaren 17an. Euskaltzaindia izango da aurtengo omendua. Korrikaren etorrera girotzeko, ekitaldi ugari izango da Goierriko herrietan.



Kultur ekitaldi ugari izango da Goierin

Legorreta

Martxoak 25, ostirala:

21:30ean: Gipuzkoako I. Mus txapelketa.

23:30ean: Kontzertua, Gaztetxean: 'Switch' musika taldea. Sarrera: 3.

Apirilak 2, larunbata:

Korrika eguna: frontenis lehiaketa, bertso-afaria eta arropa salmenta.

Apirilak 7, osteguna:

20:30ean: Korrika dokumentala, zinean.

Itsasondo

Martxoak 25, ostirala:

21:30ean: Bertso afaria.

Apirilak 1, ostirala:

22:00etan: Antzerkia Lakrikun taldearekin: 'Prest gaude' antzezlan. Eskolako aterpean.

Apirilak 15, asteartea:

Arratsaldean: Korrika Txikia, Aramatik Itsasondora.

Ondoren: Txokolate jana.

Arama

Apirilak 8, ostirala:

Iluntzean: Korrika dokumentala.

Ondoren: Talo jana.

Apirilak 10, igandea:

Eguerdian: Pintxoak, gozogintza ikastaroko postre dastaketa eta Korrika arropa salmenta.

Apirilak 15, ostirala:

Arratsaldean: Korrika Txikia, Aramatik Itsasondora.

Ondoren: Txokolate jana.

Apirilak 16, larunbata:

Eguerdian: Lipdub-a eta Korrikaren aldeko bazkaria.

Zaldibia

Martxoak 26, larunbata:

16:30ean: Altxorraren bila, Gazte Asanbladak antolatuta.

Apirilak 2, larunbata:

17:00etan: Lardizabal eskolako gurasoen eskutik 'Handaren sorpresa' lana, Antzokian.

Apirilak 2 eta 3, larunbata eta igandea:

Korrikaren aldeko diru bilketa eta Korrika materiala salgai.

Ordizia

Apirilak 3, igandea:

Eguerdian: Kuestazioa, Bustuntza auzoan.

Apirilak 6, asteazkena:

19:30ean: Film laburren emanaldia, Herri Antzokian.

Apirilak 8, ostirala:

19:30ean: Pintxoak eta elkarte gastronomikoen arteko lehiaketa: **21:00etan:** afaria, sari ematea eta erromeria trikitilariekin.

Apirilak 9, larunbata:

17:30ean: Beasaindik Ordiziara, Korrika atzeraka, Zubimuzutik.

Apirilak 14, osteguna:

17:30ean: Kale antzerkia, Zurrumurru taldearen 'Txurrimurri eta Morritoston' antzezlan, plazan.

Beasain

Apirilak 7, osteguna:

19:00etan: Korrika dokumentala, Usurbe antzokian.

Apirilak 8, ostirala:

17:00etan: Jolas-tailerrak, buruhandiak eta txistulariak.

Ondoren: Txokolate jana, udaletxe azpian.

Apirilak 9, larunbata:

17:30ean: Gipuzkoako Kantu txapelketa, Usurbe antzokian.

19:30ean: Bertso-poteoa, Kale Nagusian.

Lazkao

Apirilak 2, larunbata:

Eguerdian: Kuestazioa.

Apirilak 3, igandea:

13:00etan: Lazkao Txiki gogoan, Lazkao Txiki zelaian.

19:00etan: Korrika dokumentala, Ikastolan.

Apirilak 12, asteartea:

15:30ean: Korrika Txikia eta umeentzat jolasak, plazan.

Apirilak 15, ostirala:

20:00etan: Xanbe abesbatzaren emanaldia, Parrokian.



Ataun

Martxoak 26, larunbata:

16:00etan: Gipuzkoako I. Mus txapelketa, Pelotazale eta Artadi elkarteetan.

Martxoak 27, igandea:

18:00etan: Bertso-saioa, Hamaika Bertutekoen eskutik, Antzokian.

Apirilak 2, larunbata:

18:00etan: Korrika Eguna San Gregorion: Euskaraokea.

20:00etan: Talo-afaria.

22:00etan: Korrika dokumentala.

Zegama

Apirilak 1, ostirala:

19:00etan: Korrika dokumentala eta ondoren, Korrika poteoa Toberako txistulariekin.

20:00etan: Juan Karlos Irizarren disko aurkezpena.

Apirilak 3, igandea:

10:30etik aurrera: Korrikako arropa salmenta frontoian, Erlezain egunaren barruan.

Apirilak 13, asteazkena:

14:30ean: Korrika Txikia.

Olaberria

Apirilak 8, ostirala:

17:00etan: Jolasak umeentzat

19:00etan: Korrika dokumentala.

Ondoren: Talo afaria.

Apirilak 9, larunbata:

17:00etan: Ipuin kontalariak, Patata koadrilaren eskutik: 'Bi azeri estu eta larri'.

Ondoren: Giasel asto elkartekoekin asto gainean ibiltzeko aukera.

Mutiloa

Apirilak 12, asteartea:

Arratsaldean: Arropa salmenta, plazan.

Ezkio Itsaso

Martxoak 26, larunbata:

17:30ean: Gipuzkoako I. Mus txapelketa.

Idiazabal

Apirilak 1, ostirala:

22:30ean: Gipuzkoako I. Mus txapelketa, Xume tabernan.

Apirilak 7, osteguna:

19:30etan: Hitzaldia: 'Euskararen historia'. Hizlaria: Nabarralde-Ojaolaaitzeko naparren eskutik, udaletzeko areto nagusian.

Apirilak 9, larunbata:

21:00etan: Korrika afaria.

Ondoren: Kontzertua 'The Pardels'-en eskutik. Eta korriGAlariak jaialdia, Gazte Asanbladaren eskutik.

Segura

Apirilak 12, asteartea:

19:30ean: Korrika dokumentala, Kultur Etxean.

Apirilak 13, asteazkena:

15:00etan: Ongi etorri festa Korrikari, plazan: Korrika txikia, euskal jolasak, txokolatea, dantzariak, trikitilariak, bertsolariak, patata-tortila lehiaketa, korua, Indiana Jones Euskalakari.



biok
zerbitzuak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00

Faxa 943 80 51 27

www.biokzerbitzuak.com

Ordizia Urdaneta, 7

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Autowag




☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Ibilbidea eta ordutegia

Legorreta	Eredu	09:04
	Biribilgunea	09:11
	herri sarrera	09:17
	zubia	09:24
Itsasondo	Lasa Egurrak	09:30
	Itsasondoko kartela	09:35
	Ibares	09:43
Arama	Udaletxea	09:50
	Industrialdea	09:56
Ordizia	Olano	10:09
	Udaletxea	10:16
Beasain	Tren geltokia	10:42
	Ganbo	10:48
	Senpereko zubia	10:55
Lazkao	Zubizkitza kalea kartela	11:09
	Kiroldegia	11:14
Olaberria	biribilgunea	11:40
	Elosegi ardoak	11:47
	Markesina	11:54
Idiazabal	Etzegarate garajea	12:00
	Stop (Ampo)	12:07
	Guardi Gaina	12:13
Segura	Hilerri sarrera	12:20
	Baratze pilotalekua	12:26
	Luma Gorri bidegurutzea	12:34
Zerain	Ostatua-Udaletxea	12:39
	km 1 (Oiharte)	12:44
Mutilo	km 0	12:50
	Lierni gaina	12:58
	Arketa	13:05
Ormaiztegi	Gabiriako bidegurutzea	13:11
	Osinalde	13:19
Beasain	Salbatore	13:31
	Arriaran (eliza)	13:39
	Mendizabal pizarreria	13:44
	Garin auzoa	14:10
	Errekaundi	14:55
	Matxinbenta (pilotalekua)	15:02
	Zubia	15:04



Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari

Aurtengo Korrikaren mezua, 'Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari' da. Euskalakaria, euskara maitatu, ikasi eta erabiltzen duena da. Euskara erabiltzeko helburuz, euskara maitatuz, euskara ikasi, eta hobetzeko ahaleginak egiten dituen. Horretarako urratsak ematen dituen.

Omendua, Euskaltzaindia

Korrika 17-k, Euskaltzaindia omenduko du. Euskaltzaindiak euskararen alde egindako lan eskerga omendu nahi dute Korrika 17rekin. "Euskaltzaindia, euskararen lurralde osoa aintzat harturik, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da. 1919an sortu zenetik euskara babestea du xede, eta euskarari buruzko ikerlanak egiteaz gain, berari dagokio hizkuntza-ren normalkuntzarako arauak ematea".



Gorka Maiz, gabiriar bertsolaria:

“Zutik kantatzea baino nahiago dut afalondorengo giroan kantatzea”

Gorka Maiz gabiriarrak herriko Osinalde bertso sariketan parte hartzeko txartela lortzen saiatuko da apirilaren 8an Idiazabalen. Apirilaren 16an, sei bertsolarien tartean izatea du ametsa, nahiz eta betetzea zaila ikusten duen. 21 urte ditu Maizek.

Iaz, azkeneko momentuan galdetu zioten ea parte hartu nahi zuen Argi-Berri bertso sariketan, beste bertsolari batek huts egin zuelako. “Bote prontoan izan zen. Horrelakoetan batzutan sorpresa izan da baina gure kasuan ez zen horrelakorik. Gustura aritu nintzen. Giro ederra izan zen”, dio Gorka Maizek. Ordizian, Argi Berrin izan zuen saioa. “Argi Berri leku ederra da kantatzeko. Goxoa, polita. Jana ere ederra jartzen dute”, gaineratu du. Aurten, Idiazabalen izango du finalerako txartela lortzeko aukera, apirilaren 8an, Elizalde elkartearen.

Iaz astebete lehenago jakin zenuen, aurten, ia hilabete lehenago hasi gara komunikabideok elkarrizketak egiten. Aurten urduriago al zaude?

Nerbioso beti. Gabirian izaten da Aberri Egunean kantatu beharra eta etxetik prestatutako bertsoak kantatzeko ere urduri jartzen naiz. Lainotan nengoen Osinalden kantatu nuenean. Urduri jartzen naiz baina konpensatzen dit. Gustura gelditzen naiz.

Bertsotan hasten zarenean...

Disimulatzen saiatzen naiz. Okerrena, hasi artekoa da. Behin agurra botata, bata bestearen segidan etortzen dira denak eta lasaiatzen joaten naiz saioaren bukaera aldera. Hasieran, gai jartzailea hizketan hasten denean... Pasatu beharrekoa da. Helburua, bertsotan neuk gozatzea eta besteei goza araztea da.

Horrelako txapelketa batean aukera edukitze hutsa ez da gutxi, bertsolari asko zaudete eta.

Hala da. Bileretan ibili ginenean, bertsolari asko atera ziren. Gabiriakoa izanda, goierritarroi ematen zaigu aukera. Aurten, lau gara. Gustura. Iaz azkeneko momentuan deituta, oso gustura hartu nuen parte eta aurten ere bai. Bertso eskolan oso gutxi ibili naiz eta hemen kantatzeko aukera ematea, polita da.

Zu, gabiriarra izaki, zuretzat, Osinalde handia izango da.

Hori da. Txikitako oroitzapen handirik ez daukat, baina duela zortzi bat urtetik bai. Egoten den giroa oso polita da. Bertan kantatu dutenek kontatzen dute zein gustura aritu diren eta orain norberak aukera hori edukitzea, izugarria da.

Finalean izateko esperantzarik bai?

Zaila da. Talde gogorra da, apirilaren 8koa. Ane Labaka, Arrate Illaro... horiek txapelketa askotan parte hartu dute. Izugarrizko maila daukate. Saiatuko gara muturra sartzen baina zaila izango da. Gozatu eta ahal dena egin. Bi herritar gaude eta ea bat behintzat sartzen den finalean. Iaz Endika sartu zen eta ea aurten ere lortzen duen. Gustura animatuko dut. Iaz ni ere nerbio-so egon nintzen hura entzuten. Ilusioa egin zidan eta gustura ikusten duzu koadrilako bat kantuan.

Bertso eskolan gutxi ibilia zarela esan duzu. Noiz hasi zinen bertsotan?

Hasi, Inauteri batzuetan, Tolosan, hasi nintzen. Orduan, Goierriko Bertso Eskolako 25. urteurrena ospatzeko herri arteko Atera! jaialdia edo lehiaketa antolatu zuten. Tolosan puntutan hasi ginen eta izena eman behar genuela erabaki genuen. Izena eman genuen eta asteartean elkartearen elkartzen hasi ginen. Merienda pixka bat eramanez eta bertsotan egiten genuen. Atera-n kantatu nuenean, ikaragarria iruditu zitzaidan. Endika Ordiziako bertso eskolan ibiltzen zen eta animatu eta bertso eskolara joan nintzen. Aitor Sarriegirekin aritu ginen. Bi urte egingo nituen. Endika irakasle izatera pasatu zen, txikiagoak hartu zituen eta orduan utzi egin nuen. Orain, Eusebio Igartzabalekin eta Mikel Mendizabalek elkartzen gara ostegunetan, sei lagun.

Gabiria hain herri txikia izateko, bertsolari batzuk bazaudete. Atera-k eman zuen bere frutua.

Bagaude bai eta ematen jarraitu dezala. Lau koadrilako atera ginen. Orain, Urretxu-Zumarragan egiten duten Martxoan Bertsoan-ekin beste batzuk ere animatu dira. Koadrila elegantea daukagu. Sei ibiltzen gara. Gipuzkoako Txapelketan parte

Ni nahiko nerbio-soa naiz.
Sufritu ere egiten da baina
bukatutakoan, satisfakzioa ere
handia izaten da.



“Luze ibili nahi dut
bertsotan”

Plaza bat:

Asko ez ditut egin baina Ikaztegiako Ugane auzoa. Erregeak bezala tratatzen gaituzte.

Lan bat:

Umoreko lanak gehiago gustatzen zaizkit, neurri motzak. Zortziko txikia edo handia. Doinu luzeen zalea ez naiz. Txikian eta bixi. Gehien-gehiena, koplak gustatzen zaizkit. Puntu-erantzuna, zaila egiten zait.

Bertsolari bat:

Hilda dago baina Lazkao Txiki. Lau urte nituela hil zen baina bere bertsoak entzunda eta irakurrita, Lazkao Txiki. Goierriko hizkera nola erabiltzen zuen, ikaragarri gustatzen zait. Bizi direnetan, Amets Arzallus. Denerako balio du.

Amets bat:

Luze ibiltzea bertsotan. Ahal den plaza gehiena egin, jendea gustura utzi eta neu ere gustura ibiltzea mundu horretan.

hartzeko izena eman dugu Endikak eta biok, eta aitzakia horrekin, Eusebio eta Mendizabal laguntzeko prest azaldu zaizkigu. Ostegunetan elkartzen gara Mendizabalekin eta Igartzabalekin, Aratz Igartzabal, Jokin Murua, Endika Igartzabal, Mikel Asurabarrena, Oier Oiarbide eta seiok. Denoi bertsoa gustatzen zaigu. Gaiak, puntuak... elkartzen dituzte Mendizabalek eta Igartzabalek eta orduan beharko bertsotan egin. Horrela ikasten da. Eskertzen da ostegunero Gabirira etortzea.

Entzun dugunez, Gabirian jokatu da Gipuzkoako txapelketarako aurrekanporaketa bat.

Uste dut maiatzaren 8an jokatu dela aurrekanporaketa bat. Izena eman dugu Endikak eta biok eta atzera bueltarik ez dago. Probatzera goaz, beste mundu bat ezagutzera. Serioagoa izan da. Ni serio zalea ez naiz baina gustura joango naiz. Esperientzia bat gehiago.

Bertso afarien formatoa gustatzen zaizue bertsolariei.

Zutik kantatzea baino nahiago dut, afalondorengo giroa. Polita izaten da, beroagoa. Ezberdina. Bestea ez dut asko probatu baina bertso-afariarekin gelditzen naiz.

Finalisten mahaian ez bazaude ere, apirilaren 16an Osinalden izango zara.

Gai jartzen talde bat elkartzen gara. Sukaldean ia 120 lagunentzako afaria prestatzen, zerbitzen... jende askok lan egiten du.

Noizbait Osinalden finalisten mahaian esertzea al duzu ametsa?


Amets bat da finalean sartzea. Egia bihurtzeko zaila. Herrikoa izan da, beste motibazio bat ematen dizu. Gainera, sari polita izaten da. Osinalden irabazten baduzu eta entzuleen saria jasoz gero, Gabiriako herriko festetan, saioa izaten da izen handia duten bertsolariekin. Sari polita da.

Argi Berri, Axari eta Aztiri sariak, Osinalderen atariko



Aztiri saria
Aztirin
Martxoaren 26an
20:30ean
Aztiri elkarteak

Julen Agirre (Beasain)
Odei Barroso (Urruña)
Ander Solozabal (Gasteiz)
Manex Mantxola (Urretxu)
Mikel Olaizola (Elgoibar)
Nekane Zinkunegi (Errezil)



Argi Berri saria
Ordizian
Apirilaren 2an
20:30ean
Argi Berri elkarteak

Peio Ormazabal (Arrigorriaga)
Eneritz Arzallus (Errezil)
Xabi Igoa (Aramaio)
Iñaki Aleman (Irurita)
Ainhoa Mujika (Beasain)
Endika Igarzabal (Gabiria).



Axari saria
Idiazabalen
Apirilaren 8an
20:30ean
Elizalde elkarteak

Ane Labaka (Lasarte)
Asier Azpiroz (Zubietza)
Arrate Illaro (Getxo)
Saioa Alkaiza (Iruñea)
Gorka Maiz (Gabiria)
Adur Gorostidi (Larraitx)

Finala Gabirian

Apirilaren 16an, Gabiriako Osinalde elkarteak, sei bertsolarik jokatu dute Osinalde saria. Aztiri, Argi-Berri eta Axari sarietan aukeratu dira Osinalden parte hartuko duten bertsolariak. Saio bakoitzetik bina bertsolari sailkatuko dira. 40. edizioa izango du aurreko Osinaldek.


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

0



Sortu berria den Gazte Taldeak antolatu du: Itsasondoko I. Herri Eguna, apirilaren 9an

Itsasondoko gazteak Aldundiak bultzatutako programa batean daude murgilduta. "Emanzipazio" programa deitzen da eta honek Nerabeei zuzenduriko ekipamenduetako (Gaztelekue-tako) azken fasean dauden gazteen emantzipazioa bilatzen duen proiektu berri bat da. Gazteen emantzipazio ibilbideetan lagungarri izan nahi du; norberaren ekimenen garapenean, gazte taldeak elkarte bilakatzeraz gidatuz, gazteak hiritar parte hartze aktibora bultzatuz zein epe laburreko motibazioen aurikuntzan.

Hori lantzeko, otsailaren hasieran, Zarautzen topaketa bat egin zuten. Bertan, Azkoitia, Zegama, Irura, Urnieta eta Donostiako gazteekin batera, proiektuak zer diren eta nola egiten diren ikasteko formakuntza jaso zuten.

Handik bueltan, hausnarketa bat egin ondoren, Itsasondoko Gazte Taldea sortu da. Beraien usteetan, Itsasondoko gazteek ahotsa izateko garaia iritsi da eta herriko gazte eragileak izan nahi dute, horregatik sortu dute. Talde hau, momentuz, Itsasondoko 15-21 urte bitarteko 8 gazteek osatzen dute. Beraien helburuak, hauek dira: Itsasondoko gizartearen parte izatea; herriari zerbitzu bat eskaintzea; taldearen ideiak aditzera ematea; denbora pasatzea; herriko gazteei, aisialdi alternatibak eskain-



tzea; urtean zehar, ekintza desberdinak landu, garatu eta burutzea; hainbat gaien inguruan, sentsibilizazio kanpainak bultzatzea; herriko ekintza desberdinetan parte hartzea; ondo pasatzea eta elkarrekin egotea.

Horretarako, ekintza ugari egin nahi dituzte, irteerak, topaketak, gazte eguna, hitzaldiak, ... Guztiari hasiera emateko, ordea, egun berezi bat ospatu nahi zuten gazteek. Beraien usteetan, herrian eragile ugari daude eta bakoitzak bere ekintzak egiten ditu urtean zehar. Baina beraiek, eragile guztiak batuko dituen egun bat ospatu nahi dute. Horregatik, apirilaren 9an herria festa giroan murgildu nahi dute, Itsasondoko I. Herri Eguna ospatuz.

'Guztiona' lelopean

16:30ean: Haur eta nerabe jolasak, herriko plazan. Txikienentzat dinamika jolas desberdinak eta nerabeentzat skate inguruan jolas eta ariketa desberdinak egingo dira.

18:00etan: Gazteek prentsaurrekoa emango dute, herriko plazan, herri guztiaren aurrean, beraien taldea aurkezteko.

18:30ean: Eragileen arteko patata tortilla lehiaketa, herriko plazan.

Iluntzean, ogitarteko jana.

22:00etan: 'Egurra eta kitto' taldearen kontzertua.

Egun honen helburuak zehazki 3 dira: Itsasondoko gazte taldearen aurkezpenera egitea; herriko eragile guztien topaketa izatea eta herria festa giroan murgiltzea.

Festa, gazteek dinamizatu beharko dute eta beraiek izango dira antolatzaile nagusiak. Hala ere, herriko eragile-

en parte hartzea eta laguntza eskatu da. Horretarako bilera bat egin da eta bertan herritarrei proiektuaren nondik norakoak azaldu zaizkie eta hainbat eragileek aholkuak eman dizkie gazteei eta laguntzeko prest agertu dira.

Ainara Urteaga



kutxa

Lazkao

Ekintzak

Apirilak 1, ostirala:

20:30ean: Bertso afaria Lazkaomendiko Lartxai elkartean. Bertsolariak: Amaia Agirre eta Julio Soto.

Apirilak 3, igandea:

20:00etan: Lazkao Txiki gogoan, Lazkao Txiki zelaian ekitaldia: Goierriko Bertso Eskola, Lazkaotxiki musika eskola, Oin Arin dantza taldea.

Apirilak 7, osteguna:

19:00etan: Korrikari buruzko DVDa, Azeria Kultur Gunean.

Apirilak 8, ostirala:

19:00etan: 'Oh happy!' ikuskizuna gaztetxoentzat, Azeria Kultur Gunean.

Liluratura saioa, Arantxa Urretabizkaiarekin

Liluratura saioaren barruan, datorren maiatzaren 17an, Arantxa Urretabizkaiarekin izango da hizketaldi saioa. Urretabizkaiaren azken liburua, '3 Mariak' irakurri eta berari buruzko solasean aritzeko aukera izango da.

Itasasondo

Gaztelekua izen eta logo bila

Itsasondoko Gaztelekuarentzat izen eta logotipo bila dabilta. Horretarako lehiaketa antolatu dute. Hona hemen bertan parte hartu ahal izateko baldintzak: 11-20 urte bitarteko itsasondarra izatea; logotipoa izen batekin lagunduta azaldu behar da; aurkezteko epea, apirilaren 8an, gaztelekuan; oinarri informatiko edo Din A4 folio batean inprimatuta aurkeztu daiteke. Ebazpena eta sari banaketa apirilaren 15ean izango da.

Segura

Iparra-Hegoaren azken txanpa

Martxoak 25, ostirala:

Segurako Laiotz Herri eskolako haurren eta Angeluko eta Hiriburuko ikastolakoaren arteko egun pasa.

11:00etan: Harrera. Ondoren herri-itzulia Ardixarra bisitatuz, irati saioa.

12:30ean: Herriko haurren eta gonbidatuen arteko bazkaria.

13:30ean: Xiba jokoak.

14:30ean: Haur ikuskizuna, kantuak eta abar. Ikastetxe bakoitzak okasiorako prestatua aurkeztuko du. Haurren dantzaldia Kiki Bordatxoren taldearen eskutik.

Iluntzean: Kale animazioa.

23:30ean: Kontzertua: Xutik (lapurtarra), La Troba Kun fú (kataluniarrak) eta Emon (bergarrak).

Martxoak 26, larunbata:

09:30ean: Mendi irteera, Lizarrustiko Parketxetik: Lizarrusti-Igaratza-Lizarrusti. Euskal Herriko herri ezberdinetako mendizaleak Goierrikoekin batera inguruak ezagutuz.

11:00etan: Kirol norgehiagoka herrikoia: Iparaldeko eta Hegoaldeko taldeen artekoa.

19:00etan: Taloak eta Arabar Errioxako eta Nafarroako ardoen dastaketa, Kuxkuxtu Txarangak alaitua.

23:00etan: Inazki Lapurdiko taldearekin dantzaldia.

Martxoak 27, igandea:**Goizean:**

✓ Kriseilu txistulari taldearen goiz eresia.

✓ Herriko eta herrialde bakoitzeko produktuen azoka. Goierriko eta Ipar Euskal Herriko laborarien ekoizpenak.

✓ Sukalki edo gisadu txapelketa.

✓ Animazioak: Mutiko Alaiak txaranga, Baigorriko gaiteroak, Hazparneko joaldunak...

✓ Dantzariak: Akelarre taldea. Herriko gazteen korua eta beste hainbat herrian zehar.

13:00etan: Txakolin dastaketa.

14:00etan: Euskal Herriko herrialdeen arteko lotura sinbolizatzen duen Gereziendoko ekitaldia. Gonbidatu bereziak: Luzien Etxezarreta eta Jojo Bidart, Gure Irratia eta Irulegiko Irratiaren sortzaileak.

14:30ean: Herri bazkaria, Kuxkuxtu txarangak alaitua.


Ondoren: Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa. Mutxiko dantzak aurtengo ekitaldiei bukaera emateko.



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko lantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Zegama

Erlezain eguna, apirilaren 3an

Apirilak 1, ostirala:

20:00etan: Joan Carlos Irizarrek 'Aizkorriko Ataria' diskoa aurkeztuko du, San Martin elizan Orkatz abesbatzarekin.

Apirilak 2, larunbata:

17:00etan: Hitzaldia: 'Eztia eta honek gizakiarengan dituen onurak'. Hizlaria: Silvia Cañas. Kultur Etxeko Oria aretoan.

18:00etan: Dantza topaketa, Plazan. Eguraldi txarra bada, Aitxuri Herri Eskolako patioan.

19:30ean: Euskolabel Urrezko Aizkolarien txapelketa. Goi mailako lehen kanporaketa Udal pilotalekuan.

Apirilak 3, igandea:

10:00etan: Txistulariekin kalejira.

10:30ean: Euskal Herriko gozogileen erakusketa.

10:30ean: Gipuzkoako XIII. Ezti lehiaketaren hasiera.

11:30ean: Ezti-dastatze gidatua Silvia Cañasek gidatuta.

12:00etan: Durrumbaren hasiera Aseginolaza Anaiei kaletik.

12:15ean: Erleari eta erlezainei omenaldia.

12:30ean: Durrumbaren eta ezti lehiaketaren amaiera.

13:00etan: Urteko erlezainei omenaldia: Felix Urzelai (Urretxu) eta Joxe Etxeberria (Azpeitia).

13:15ean: Aitxuri Herri eskolako haurrei zuzendutako marrazki lehiaketa sari banaketa.

13:30ean: XIII. Gipuzkoako ezti lehiaketa sari banaketa.

14:15ean: Bazkari herrikoia herriko Ostatuan.

18:30ean: Udal pilotalekuan, bertso jaialdia Kasino elkarteak antolatuta eta Udal Kultura batzordeak babestuta. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia eta Anjel Mari Peñagarikano. Gai jartzailea, Unai Elizasu.

Beasain

Martxoko ekintzak

Martxoak 24, osteguna:

21:00etan: Zine kluba, Usurbe Antzokian: 'El secreto de Kells'.

Martxoak 25, ostirala:

20:00etan eta 22:30ean: Entzunaldi didaktikoa, Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola.

21:00etan: Bertso-afaria, Batzokian, Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolariekin.

Martxoak 26, larunbata:

17:00etan: Txotxongiloak: Paperezko istorioak. Usurbe Antzokian.

Martxoak 27, igandea:

19:00etan: Loinatz abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

Martxoak 29, asteartea:

17:30ean: Ipuin kontaketa: 'Mari Ipuin kontalari a ze sukaldari!', Udal liburutegian.

Martxoak 30, astezkera:

09:30ean: Haur zinea eskolaumeentzat: 'Txori urdin'. Usurbe Antzokian.

Martxoak 31, osteguna:

10:30ean: Antzerki amateur: Beasaingo Institutuko ikasle-
en 'Bodas de sangre'.


18:etan: Hitz tailerra, Arriarango Intxaurpe elkarteak, AEK-k eta Intxaurpe elkarteak antolatutak. Amaia Agirre bertsolariak, 'Koplak nola egin' irakatsiko du.

Ordizia

Ikusi-Makusi

Apirilak 14, osteguna:

17:30ean: Ordiziako Plaza Nagusian, Txurrimurri eta Morritoston pailazoak.



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**



ibaiondo
altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA
INFORMATIKA - MEKANOGRFIA
IKASKETA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120
685 722 403 - 675 006 462
ikaskide@ikaskide.net



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Beasain-Ordizia

Antzerki garaia

Apirilak 8, ostirala:

22:15ean: Ordiziako Herri Antzokian, 'May Gorostiaga... Presente'.

Apirilak 15, ostirala:

22:15ean: Beasaingo Usurbe Antzokian, Ttamtakaren 'No me hagas daño'

Ormaiztegi

Familientzako tailerrak

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak, larunbatero, familientzako jarduerak edo tailerrak antolatzen jarraitzen du. Datozen hiru ikastaroak, honokoak izango dira. Denak larunbatetan izango dira arratsaldeko 5,30etatik 7etara, dohainik.

Martxoaren 26an: Egun batez disenatzaile.

Apirilaren 2an: Musikari karlistak.

Apirilaren 9an: Txotxongilo emanaldia.

Ordizia

Martxoko ekitaldiak

Apirilaren 8a bitartean:

'Ur' taldearen pintura erakusketa (Ainize Butron, Juan Manuel Galarraga, Eva Irazoki, Oaia Perurena, Gonzalo Etxeberria, Ricardo Paskual, Kepa Arizmendi), Barrena Kultur Etxean.

Martxoak 27 igandea:

07:30ean: Barrena Kultur Etxetik. Argazki irteera, Kostaldera. Antolatzailea: Ortzadar Argazki Elkarte.

Martxoak 29, asteartea:

19:30ean: Barrena Kultur Etxean, Argazki tailerra: Oinarriko argazkia- Estudio teknikak. Antolatzailea: Ortzadar Argazki Elkarte.

Martxoak 26, larunbata:

18:00etan: Barrena Kultur Etxean, Jose Campanari argentinarra eta Mercedes Hernandez mexikarra.

22:15ean: Herri Antzokian, Ruper Ordorika, 'Bakarka'.


Martxoak 27, igandea:

18:00etan: Barrena Kultur Etxean, Kongoko bi kontalari: Bertrand N'Zoutani eta Robert Mavoula.

IREKI BIDEA EZKERRARI

Abertzaletasunetik eta ezkerretik
munduari irekiak.
Ezker abertzalea sendotzen eta
XXI. mendeko
ezker zibil eta zabala eraikitzen.





Mutiloarren Arantzazura egindako erromesaldia,
1937ko irailaren 5ean

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA


www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

EGUARDIZ IREKITA
9:30etik 19:00etara
ostiraletan:
9:30etik 15:00etara



POTTOKA
KAFETEGIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04




zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU




GORENAK

EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK
DIPLOMA SAGARDO

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK


SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



WWW.SAGARDOGORENAK.COM

HAUEK IZAN DIRA AUKERATUAUAK.
PROBARIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELA KO.
KALITATE ETA PROFESIONALITASUNEAN NAGUSI DIRELA KO.
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.






UO11

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK
GAINONTZEKO
EGINGO DUGU GUK**

abio@abio.es
www.abio.es



VIAJES
ABIO

BIDAIAK

943 805 311

ASTE SANTU HONTAN IRABAZI DIRUA BIDAIATUZ

**GAINERA, OPORRETARAKO HURRENGO EROSKETAREN
100 EURO BAKOITZEKO 20 OPARITUKO DIZKIZUGU**

Eskaintza hau apirilaren 10a baino lehenago egindako erreserbetarako izango da baliagarria.
Informazio gehiago Abio Bidaiaiken.

UDAKO OPORRAK 2011

AURRERATU ZAITEZ ETA AURREZTU EZAZU DIRUA

Maiatzaren 31a baino lehenago erreserbatuz gero udan, abuztuaren barne, preziorik onenean bidaiatuko duzu. Zehazten diren kopuruetarainoko beherapenak.

IRLAK, EUROPA, ZIRKUITOAK, KARIBEA ETA BRASIL > %22

KRUZEROAK > %50

ESPAINIAKO KOSTAK > %60

PREZIO ZIURRA PLANA

Eskaintza hobegoren bat topatuz gero prezioa berdinduko dugu. Erreserba egin ondoren bidaiaren balioa jeisten bada dirua itzuliko dizugu.

BERME OSOA

Alzerapenak, overbooking-ak, hegaldiak bertan behera geratuz gero edota ekipajea galduz gero > Visa Viajes Iberia txartela dutenentzat soilik.

DOAKO FINANTZIAZIOA

3, 6 eta 10 hilabetetarako.

3. ETA 4. PERTSONAGATIK BEHERAPENAK

UMEAK DOHAIN

ORAIN ZURE BIDAIAREN EROSKETA GURE WEBGUNEAN ERE

www.abio.es